

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK**Izen-abizenak:** Joxemari Aldanondo Galdos**Helbidea:** Ibargarai kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Bergara **PK:** 20570**Nortasun agiria:** 56.887.673X **Telefonoa:** 943763262**Noren ordezkari:**

1

ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK**Enpresaren izena:** Le Bon Vivant Aseguruak**Helbidea:** Arruriaga kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Bergara **PK:** 20570**IFZ/NA zk.:** 56.887.673L **Telefonoa:** 943763262**Jarduera:** Aseguru enpresa**ERREKLAMAZIOAREN ARRAZIOAK ETA HELBURUA**

Sukaldean ura ateratzen zenez, aseguru etxera deitu nuen. Iturgina berehala etorri zen eta lurra altxatu beharra izan zuen handik pasatzen zen hodia konpontzeko. Hodia konponduta geratu zen baina lurreko azulejoek sortu didate arazoa. Sukalde erdi-erdian zulatu behar izan zuten eta gero jarri dizkidaten azulejoak desberdinak dira. Itxura denez ez dituzte lehen zeudenak bezalakoak aurkitu eta horregatik jarri dituzte desberdinak.

Sukaldeak oso itxura txarra dauka eta uste dut lur guztia aldatu beharko luketela, ez baita nire kontua azulejo berdinak aurkitu ez izana.

Aseguru etxeak ez dit jaramonik egiten. Hodia bera eta hark sortutako kaltea konpondu dutela diote. Nik sukaldega zegoen bezala uztea besterik ez dut eskatzen. Izan ere, orain itxura txarra dauka. Lurra aldatzen ez badute neuk aldatu beharko dut, baina horretarako zertarako ordaindu aseguru?

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko urriaren 27an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK (FAKTURAK, EGIAZTAGIRIAK,...)

Polizaren kopia

Polizaren ordainagiria

Izp.

